




Thoreauren poemak

(benetako zein
apokrifoak) edo

Poesia txarraren apologia

aurkezpenak
eta itzulpenak:

Antonio Casado da Rocha

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ANTONIO CASADO DA ROCHA

Thoreauren poemak

(benetakoak zein

apokrifoak) edo

Poesia txarraren apologia

Henry David Thoreau idazle ipar amerikarra ospetsua da Walden, Desobedientzia Zibila eta beste entseguak, eta bere egunkaria direla eta. Prosazko artelanak dira, denak. Baina Thoreau ez zen poeta ona, eta bazekien.

Behin batean Harvard Unibertsitateak inkesta bidali zion, ikasketak bukatu ostean bere ogibidea zein zen jakiteko. Honako hau erantzun zuen: "Eskolako maisua izan naiz, baita tutorea, lur-neurtzailea, lorazaina, baserritarra, pareta-margotzailea, arotza, igeltseroa, jornalaria, arkatx egilea, idazlea eta sasipoeta ere."

Thoreauk "poetaster" hitza erabili zuen, poetastroa, poeta kaxkarra. Txarra zela jakinda ere, ez zion poesia idazteari inoiz utzi. Antza, poesia txarrak ere balio du. Besteak beste, poeta txarraren asmo onak zeintzuk diren adierazteko.

Hipotesi hori egiaztatzeko, hainbat poema jarriko ditugu hemen. Zertarako balio du poema batek? Adibidez, naturaren edertasuna adierazteko. Hala esaten du gure lehenengo poema honek. Norena den... gero jakingo dugu.

1.

Gauzen edertasun harrigarria sentitu eta deklaratu:
lurra, harria eta ura,
piztia, gizon-emakumea, eguzkia, ilargia eta izarrak;
giza naturaren edertasun gorria, bere pentsamenduak,
astinduak eta pasioak,
natura gizagabea eta bere nagusitasuna,
gizakia amets erdia baita; gizakia naturaren ametsa
omen da, baina harkaitza
eta ura eta zerua egonkorrak dira. Zabal
sentitzea, zabal ulertzea, zabal adieraztea naturaren
edertasuna, poesiaren zeregin bakarra da.
Gainontzekoa jolasa da: sentimendu onak edo nobleak,
ideia korapilotsuak,
amodioa, lizunkeria, desioa: arrazoiak baina ez arrazoia.

To feel and speak the astonishing beauty of things—
earth, stone and water,
Beast, man and woman, sun, moon and stars—
The blood-shot beauty of human nature, its thoughts,
frenzies and passions,
And unhuman nature its towering reality—
For man's half dream; man, you might say, is nature
dreaming, but rock
And water and sky are constant—to feel
Greatly, and understand greatly, and express greatly,
the natural
Beauty, is the sole business of poetry.
The rest's diversion: those holy or noble sentiments, the
intricate ideas,
The love, lust, longing: reasons, but not the reason.

Gainontzekoa jolasa denez, jolas bat proposatzen diogu entzuleari. Irakurraldi honetako poema gehienak Thoreaurenak dira, 19. mendekoak. Baina denak ez dira Thoreauk eginak: beste batzuk tartekatatu ditugu, 20. eta 21. mendekoak, Thoreauren eran-edo idatzitakoak.

Zeintzuk diren benetakoak eta zeintzuk apokrifokoak asmatu beharko du entzuleak, kiniela, “quiz” edo “porra” moduko bat osatuz. Poema bakoitzari zenbaki bat jarri diogu, eta amaieran esango dugu zeintzuk diren benetakoak, eta nortzuk dira apokrifoen egileak.

Gaztetan, Thoreauk poema batzuk argitaratu zituen The Dial aldizkarian. Baina aldizkariak 1844an porrot egin zuenean, bere prosazko testuetan poemak txertatzeko ohitura hartu zuen.

Horietako poema batzuk oso laburrak dira, tiro hotsak dirudite. Honako honek badirudi horietako poema japoniar bat, haiku bat. Hain da laburra (17 silaba ditu), ezen bitan irakurriko baitut.

2.

Ikusten dugu
planeta eroria:
hori da guztia.

We see the *planet* fall,
And that is all.

Thoreau jaio zen 1817an Concord-en, Massachusetts estatuko herri txiki batean; Walden laku txikia oso gertu dago. Bertan izandako bizipenak Walden izeneko liburuan jaso zituen. Liburuak 18 atal ditu, eta azken aurrekoak udaberriaz dihardu.

Luzeak eta ankerrak dira Ingalaterra Berriko neguak; martxoaren eta apirilaren bitartean, Thorearen inguruan denak zeuden adi-adi udaberria noiz etorriko. Ezen udaberriaren etorrera ikusten dugu orduan, baina adi egonez gero, entzun ere egiten baita.

3.

Apirilak 1. Eguzkiak jota,
berrabiatu da natura osoa,
lur bustia zirtakatzen hasi da
txingarrak zirtakatzen diren legez,
barruko sua oraindik bizirik
dagoela esaten ari dira,
hasten eta mugitzen, zirt eta zart,
zirt eta zart belarrak
gaur entzun dituzu, gaur
zirt eta zart hostoak
hasten eta mugitzen, zirt eta zart
dagoela esaten ari dira,
barruko sua oraindik bizirik
txingarrak zirtakatzen diren legez
lur bustia zirtakatzen hasi da,
berrabiatu da natura osoa
eguzkiak eta apirilak jota.

April 1st. The sun hits
And the whole of nature starts up,
Damp earth begins to sizzle
The way embers do
The inner fire still alive
That's what they are saying,
They grow and move, here and there,
Here and there the grass
Today you have heard, today
Here and there the leaves
They grow and move, here and there,
That's what they are saying,
The inner fire still alive
The way embers do,
Damp earth begins to sizzle
And the whole of nature starts up,
Hit by the sun and April.

*Euskal Herria Kantauriari begira dagoen moduan,
Ingalaterra Berria Atlantikoari begira dago. Bailearen
arrantzan ere ibiltzen ziren han; izan ere, Walden baino
hiru urte lehenago argitaratu zen Moby Dick eleberria.
Thoreauk bizitza osoa eman zuen herrixka, Concord,
kostaldetik 35 kilometrotara dago.*

*Hurrengo poemari itsas usaina dario. Oso laburra da hau
ere, berriz ere bitan irakurriko dut. Arreta jarri,
misteriotsua da eta.*

4.

Eguzki etzanaren eta bidaiaren artean.
Itsasertzeko duna higikor batean altxatuta,
ehiza-txakurra gizon baten gorpuaren gainean.

Between the traveler and the setting sun.
Upon some drifting sand heap of the shore,
A hound stands o'er the carcass of a man.

Norena ote zen gorpu hura, itsasertzeko duna batean hilotz? Thoreauk bidaia batzuk egin zituen Cape Cod-eko hondartzetara, eta horietako batean naufragio baten biktimak topatu zituen; gehienak etorkin irlandarrak ziren.

Thoreauren garaian, langile asko Irlandatik joan ziren Estatu Batuetara, goseari ihes. Bere etxetxea egiteko oholtzak irlandar bati erosi zizkion Thoreauk. Pobreetan pobreenak ziren, eta beren egoeraz kezkatuta hainbat pasarte idatzi zuen.

Hona hemen mutiko irlandar bati egindako poematxo bat. Thoreauk idatzia da, ala beste poeta txar batek? Apustua egin, eta gero jakingo dugu.

5.

Mutiko irlandarra naiz,
txabolan bizi dena;
lau urte ditut orain
baina laster bi dozena.

Gizon bat bihurtzeko
hazi egingo naiz eta
eguna emango dut
palarekin lanetan;

lurrean murgilduta
Lubaki Sakonetan,
trenbidea egiten
irlandarren oinetan.

Afaltzeko patatak,
ogia batzuetan,
eta hotza badago
sartzen naiz ohean.

Amak ez du negarrik,
aitak ez dit errieta:
mutiko irlandar bait naiz,
lau urte dituena.

Eskolara egunero
jarraituz trenbidea,
elurra hain zen hotza
negar egin nuela;

halere ez dit axola
elur-mina edo jela:
mutiko irlandar bait naiz
lau urte dituena.

I am the little Irish boy
That lives in the shanty
I am four years old today
And shall soon be one and twenty

I shall grow up
And be a great man
And shovel all day
As hard as I can.

Down in the deep cut
Where the men lived
Who made the Rail road.

For supper
I have some potatoes
And sometimes some bread
And then if its cold
I go right to bed.

My mother does not cry
And my father does not scold
For I am a little Irish Boy
And I'm four years old.

Every day I go to school
Along the Railroad
It was so cold it made me cry
The day that it snowed.

And if my feet ache
I do not mind the cold
For I am a little Irish boy
& I'm four years old.

Irakurtzen ari garen poema gehienak gaztelaniaz argitaratu ditu aurtan Cátedra argitaletxeak. Javier Alcorizak egin du bertsoia eta berarekin hitz egin dut Thoreauren idatziak itzultzeko zailtasunaz. Horiek saihesteko, Javierrek erabaki du Thoreauren errimak eta bertso neurria ez mantentzea, bertsoen esanahian arreta jartze aldera.

Zilegia da erabakia noski, baina jatorrizko poemak errimaz beteta daude eta hori kenduz gero, musikarik gabe geratzen dira bertsoiak. Hori dela eta, euskarazko bertsoiak musikarekin ezkontzea erabaki nuen nik. Eta kasu batzuetan errimak mantentzen saiatu naiz.

Hurrengo poema Walden liburuaren zirriborro batean zegoen, baina ez zen behin-betiko bertsiara iritsi. Lakuan idatzitako eskuizkribu hura txukuntzen eta berridazten urte batzuk eman zituen Thoreauk. Egunez egun bizi baitzen, ez zuen presarik.

6.

Oraingo denboraren bila noa,
beste klimarik ez dut behar,
bizitzara gaur, ez beste inora,
Parisera edo Erromara,
edo urrunago dagoen bestera.
Heriotza morala da gizakiarena
bititza arnasarekin bat ez datorrela.
Zer dira balentriak
etxetik at?
Zer da entsegurik onena
Erromako hondakinen gainean?
Bide urratuak,
Bibliako esaerak,
eguraldi atseginak,
errekaren bueltak
eta horrek guztiak
noraezean ibiltzea galarazten didate
pentsamenduan zein ekintzan.
Izotzean edo uholdean,
Hego eguzkitsua bilatu ordez
bidaia osoa egin nahi dut
oraingo ordu eguzkitsuan.
Hemen porrot eginez gero
non irabazi?
Zure lurra maite ez baduzu
ez duzu ezer maitagarririk topatuko
urruneko kostalde batean.
Azken ilusentia maite ezean,
zer dago irudietan edo harribitxietan?

I seek the present time,
No other clime,
Life in to-day,—

Not to sail another way,—
To Paris or to Rome,
Or farther still from home.
That man, who'er he is,
Lives but a moral death
Whose life is not coeval
With his breath. [...]
What are deeds done
Away from home?
What the best essay
On the Ruins of Rome?
[...] The dusty highways,
What Scripture says,
This pleasant weather,
And all else together,
The river's meander,
All things, in short,
Forbid me to wander
In deed or in thought.
In cold or in drouth,
Not seek the sunny South,
But make my whole tour
In the sunny present hour.
For here if thou fail,
Where can'st thou prevail?
If you love not
Your own land most,
You'll find nothing lovely
On a distant coast.
If you love not
The latest sunset,
What is there in pictures
Or old gems set?

Walden laku ertzeko maldatxo baten gainean bi urte eta bi hilabetez bizi zen Thoreau, berak egindako etxetxoan, nahiz eta batzuetan gurasoen eta lagunen etxean afaldu.

Uztailaren 4rean etorri eta irailaren 6an joan zen. Bertan bizi zelarik, bi liburu eta hainbat hitzaldi idatzi zituen. Gero bere laguna eta maisua Ralph Waldo Emerson-en etxea eta familia zaintzera joan zen, Emersonek atzerrian hitzaldiak ematen zituen bitartean.

Thoreau joan eta gero, lakuko etxolak urte batzuk iraun zituen zutik baina hutsik.

7.

Maldan gora altxatu dut soa
eta bertan xut etxola:
herdoilak eta huntzak jan dute.
Hala ere, ez dakit nola
ez den erori, ezen etxea
aspaldi hutsik baitago,
eta begirada joan egin zait
sinbolotik haratago
zein eskasa den literatura
pentsatzera: idazleek
orduak eta orduak eman
eta gero, bakar batek
bakarrik lortuko du loria,
urritasuna nagusi,
eta zein azkar ahaztuko den
liburua eta guzti.
Baina hori ez da guztiz egia
egia erdia baizik:
etxola ondoko haritza ere
bertan ikusi dut zutik,
argi berdea adar puntetan.
Hosto berriek bizitza
oparoa iragatzen dute:
bertan ere dago hitza.
Sinboloak bilatzeko grina
(hain gurea den gura hau)
zorionez ez da inoiz gelditzen:
poesiak salbatu nau.

Uphill I raise my eyes
And see the little house upright—
Eaten by ivy and rust.
Still I don't know
How it hasn't fallen, since the house
Has been empty for years now,
And my gaze is gone
From this symbol to beyond—
Why, what a meagre thing
Literature is: writers
Putting hour after hour of work
And after all that, only one
Will be succesful, you know—
The scarcity of success,
And how fast it will be gone
With the books and all.
Yet that is not the whole truth
But half of it:
By the little house an oak tree
Standing up I have seen—
Green light its branches and buds.
New leaves life
A plenty announce—
And the word is there, too.
This longing to find a symbol
(Such a will that is so ours)
Keeps moving without end—
And poetry saves me again.

Hitzaldiak emanez sosa batzuk irabazten zituen Thoreauk ere. Hitzaldi horien artean, "Sagar basatiak" (Wild Apples) izeneko bat dago. Sagarren historia eta kultura gaitzat hartuta, bertan kontu asko aipatzen ditu Thoreauk. Batzuk berak ikusitakoak, beste batzuk liburuetan ikasiak.

Adibidez, Alberto Handia filosofo eta apezpiku katolikoak jaso omen zuen honako bitxikeria hau, sagarroi edo trikuari buruz. Antza, trikuak lurlean eroritako sagarrak topatzen dituenean, txiribueltak egiten omen ditu sagarren gainean, bere arantzetan zintzilik eraman ahal izateko.

8.

Liburu zaharrek esaten dute
trikuak holakoetan
sagarra etxera eramaten du
zintzilik bere arantzetan
bere gainean zilipurdika
edo jira eta bira
trikutxoek jan ditzaten dabil
sagarrak baldin badira.

I learn from Topsell's Gesner, whose authority appears to be Albertus, that the following is the way in which the hedge-hog collects and carries home his apples. He says,—“His meat is apples, worms, or grapes: when he findeth apples or grapes on the earth, he rolleth himself upon them, until he have filled all his prickles, and then carrieth them home to his den, never bearing above one in his mouth; and if it fortune that one of them fall off by the way, he likewise shaketh off all the residue, and walloweth upon them afresh, until they be all settled upon his back again. So, forth he goeth, making a noise like a cart-wheel; and if he have any young ones in his nest, they pull off his load wherewithal he is loaded, eating thereof what they please, and laying up the residue for the time to come.”

Animalietaz idatzi zuen Thoreauk, baina baita txoriei buruz ere. Ibaian topatzen zituen txoriak, eta itsas ertzean ere bai. Mendiak eta tontorrak bere filosofia eta etika irakasleak zirela esaten zuen.

Ameriketako natiboak edo "indioak" estimatzen lehenengoetako bat izan zen, beren hizkuntza eta ohiturak ikasteko gogo bizia zuen. Politikaz ere idatzi zuen, paisaiaz, eta urtaroen igarotzeaz.

Hona hemen udaberriari buruzko beste poema bat.

9.

Xoxo bat, hiru bele adar biluzietan
berdez eta poliki janzten ari den maldan;
habigintzan sortu den higiezinen *boom* hau
gure bizilagunak moztutako adaxkak
birziklatzeko asmo garbiaz etorri da,
eta kimuak nonahi zerbaiten esperoan
isilik eta ernai.

Gelditasun une hau
bada zerbait esan nahi duen isilunea,
bat-batean paisaia baino gehiago dena:
bizi den misterioaren dardara dago bertan,
barruan daramadan mundu urruti batean,

barruan daramazun mundu urruti batean,
barruan daramagun mundu urruti batean.

A blackbird, three crows on the bare branches
In a slope that is slowly getting dressed in green —
Nest building was the origin of this rise in real estate
By using the branches our neighbor just cut
It speaks of its clear intention to recycle,
And the buds are everywhere waiting for something,
Still yet awake.

 This moment of silence,
A silence that means to say something,
It suddenly is more than landscape —
There's in it the beat of a living mystery
In such a far away world I have inside,

In such a far away world you have inside,
In such a far away world we have inside.

Trena entzuten zuen Thoreauk Waldeneko bere etxetik. Oraindik ere hortik, laku ertzetik, pasatzen baita Boston-Fitchburg trenbidea.

Baina 19. mendean beste trenbide mota bat igaro zen Concordetik: The Underground Railway, "lurpeko trenbidea", Hegoaldetik ihes egindako esklabu beltzak laguntzeko lagun sarea, alegia. Etxez etxe laguntzen zieten iheslariei, gauez iparralderako eta askatasunerako bidea salbu egin dezaten.

Thoreaturen etxetxoa izan zen trenbide horren geltoki bat. Bere familia esklabutzaren kontrako aktibistak ziren eta, Emersonen etxea utzitakoan, beraiekin joan zen bizitzera.

Henry David Thoreau 1862an hil zen, 44 urte zituela, tuberkulosiak jota, bere familia eta lagunez inguraturik.

Amaitu aurretik, "indioa" eta "altzea" hitzak ahoskatu omen zituen.

10.

Nire pentsamenduak ez dira hilko,
zeren lehortea etorri arren
zeruaren urdina ez baita inoiz kixkali.
Zerua ez da zimeltzen, ez da lehortzen,
handik begi orok uzta bildu arren ez da agortzen.
Nire begiak dira nire artaldeak,
mendiak dira nire uzta.
Nire artaldeak ez dira galduko,
eguna gora eta behera ibiltzekoak baitira,
harat-honat azken argi izpiekin ibili arren
gaua etorri eta etxeratu dira.

I do not fear my thoughts will die
For never yet it was so dry
As to scorch the azure of the sky.
It knows no withering & no drought
Though all eyes crop it ne'er gives out
My eyes my flocks are
Mountains my crops.
I do not fear my flocks will stray
For they were made to roam the day
For they can wander with the latest light
Yet be at home at night.

Gaua dator eta etxeratzeko tenorea dugu; hauxe epilogo. Poema txar hauek zer edo zer ikasteko balio izan digutela espero dugu. Esate baterako, Thoreau oraindik bizirik dagoela, nola edo hala, poeta txarra izan arren; trikuek arantzak erabiltzen dituztela guk erosketarako poltsa erabiltzen dugun moduan; lau urteko haurrak eskolara oinez joan daitezkeela; Walden lakua uste baino gertuago daukagula; edo 19., 20. eta 21. mendeko sasipoetak ez garela hain ezberdinak; kontrakoa frogatu arte, poeta txarrak gara guztiok.

Esan bezala, hemen irakurri diren lau poema ez dira Thorearenak. Lehenengoa Robinson Jeffers-en "The Beauty of Things" poemaren nire bertsioa da. Hirugarrena eta zazpigarrena nik idatziak dira. Zortzigarren poema Thorearena da, baina jatorriz prosan idatzia, eta Jon Altuna Iza "Oxan"en laguntzaz zortziko handian moldatua. Bederatzigarren poemak Miguel d'Ors-en Manzanar robadas liburuari zor dio bukaera.

Hori guztia Andoni Tolosak jarritako soinu bandaren gainean, eta Iñaki Armendarizek gitarrarekin lagunduta, Alkizako Ur Mara museoan aurkeztu zen 2018ko irailaren 15ean.

Denon izenean, eskerrik asko eta hurrengora arte.